



ALBOAN

www.alboan.org

Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Esperientziak ALBOAN

...

2. Etorkizun-aukerak. (2007)
3. Nazioarteko boluntariotzaren erroak, iparraldeko ikuspegi batetik. (2007)
4. Nazioarteko boluntariotzaren erroak, hegoaldeko ikuspegi batetik. (2007)
5. Nazioarteko boluntariotza: topaketa baterako gakoak. (2007)
6. El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia. (2011)
7. Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia. (2015)

Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2.
48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302

Andia, 3
20004 Donostia
Tel.: 943 275 173

Estenaga Apezpikua, 1
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Data: Ekaina 2015

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-1827-2015

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Edukia

Sarrera	5
Herritarren parte-hartzea eta politika publikoak	7
<i>Maximiliano Ruíz Rosales</i>	
Zer da herritarren parte-hartzea?	7
Zergatik eta zertarako	9
Parte-hartzea eta plangintza	13
Parte-hartze mekanismoak eta politika publikoak Perun	16
Aurrera begira	19
Erreferentzia bibliografikoak	22
Partaidetza eta gobernantza	
Partaidetza-demokrazia edo demokrazian parte hartzea?	25
<i>Imanol Zubero</i>	
Gobernantza, muga gaitzaile gisa	26
Gobernantza, hitz giltzapetzaile gisa	26
Demokrazia. Esadazu zer-nolako demokrazia nahi duzun, eta esango dizut zer pentsatzen duzun.	30
Partaidetzaren erronka handiak	31
Partaidetza demokratikoa	34
Gobernantzaren esparrua, esparru kontra-hegemonikoa eta tarteko esparrua	34
Zer egin, aukerak baliatzeko eta alderdi negatiboak gainditzeko?	35
Bibliografia	36

2008an lehertu zen krisi ekonomiko eta sozialak krisi politiko sakona ere ekarri du. Espainiako Estatuko hainbat plazatan, “Ez gaituzte ordezkatzeko” zioten oihuak entzun ziren, eta horiek isla izan zuten geroago beste zenbait herrialdetan. Bertako herritarrak kalera atera ziren, euren beharrak eta arazoak kontuan hartzen ez dituen sistema batekiko gaitzespena erakusteko. Aldi berean, azken urteotan, hainbat erakunde publiko herritarren partaidetza handiagoaren alde agertu dira, herritarren eta administrazio publikoen arteko topaketa eta bateratzea lortzeko asmoz. Nola gerta daiteke paradoxa hori?

ALBOAN erakundea luzarotik dabil herritarren partaidetzaren gaia lantzen. 2007. urtean, lehenengo ikerketa argitaratu genuen; bertan, partaidetzaren oinarriak ezarri genituen, eta Hegoaldeko hainbat erakunde kideren esperientziak Euskal Herrian egindako beste esperientzia batzuekin elkartu genituen. Protagonistak eraikitzen dituen eta pertsonen, taldeen eta erakundeen gaitasunak indartzen dituen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Pertsonak zerbitzuen onuradun gisa antzematen dituen ikuspegi utilitarista gainditzeko duen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu, euren burua eta ingurua garatzeko eragile diren herritarren protagonismoa sustatzen duen partaidetzaren aldekoa. Modu horretan, partaidetzako prozesuek herritarrentzako oinarritzako prestakuntzarako eskola gisa jarduten dute, eta gerora sortuko diren aldaketa pertsonal eta kolektiboaren oinarria dira.

Baina partaidetzak ez du herritartasuna eraikitzen soilik; demokrazia zimendatu ere zimendatzen du. Hegoaldeko hainbat herrialdetan, neurri handi batean herritarren partaidetzako esperientziei esker, bertako sistema demokratiko ahulak indartu dira. Zenbait kasutan, politika publikoak hobetu eta giza garapenerako emaitzak lortu ahal izan dira. Horretarako, beharrezkoa da uste oker hau apurtea: pobrezia egoeran dauden pertsonak izaki pasiboak, hartzaileak eta garapen

politiken onuradunak direlako ideia, alegia. Partaidetza sustatzeak herritarrekiko ikuspegia aldatzea dakar, eta partaidetza-prozesu orok herritartasuna eraikitze-ko eduki behar duen izaera sustatu behar da; aukerak lortzeko eta askatasuna baliatzeko baldintzak sortzea dakar horrek.

Herritarren partaidetzako erronka handiak bi ardatzen inguruan biltzen dira: bata, nola inplikatu gizartea interes komunak zehazteko; bestea, zein espazio eta alorretan hartu behar diren erabakiak. Erakunde publikoek gizartearen eta horien talde antolatuen interesak ulertzeko duten modua ere beste alderdi garrantzitsu bat da, bezerotzan eta erakundeen edo horien liderren kooptazioan erori gabe. Partaidetzarako espazioak sustatzeak alderdi publiko, sozial eta politikoetan interesa duen gizartea eraikitze bidean jarri behar gaitu. Interes hori lagungarria izan daiteke gizarte zibileko talde formalentzat eta herritarrentzat oro har, Estatuarekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko baldintzak eraikitze. Baldintza horiek herritarren ondasun komuna eta ongizate orokorra lortzera bideratu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da herritarrek protagonismoa hartzea, euren bizitzan eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko orduan.

Koaderno honek partaidetzaren alderdirik orokorrenak jorratzen ditu: zer da partaidetza? Zein dira oinarriak? Nola lotzen da partaidetza demokraziarekin eta herritartasunaren eraikuntzarekin? Zein modutan lotzen da partaidetza gobernantzarekin? Zubiak eraikitze asmoz, gai horiek proposatu genizkien Peruko eta Euskadiko bi pentsalariri. Haiek emandako erantzunek, proposatutako gaien inguruko zalantzak argitzeaz gain, etorkizunean hartu beharreko bideak antzematea ahalbidetzen dute; lortu nahi dugun mundu horretan, partaidetza aldaketarako motorra izan dadin lortzeko dugun interes komunari dagokionez.

Herritarren parte-hartzea eta politika publikoak

Maximiliano Ruíz Rosales

Nazioarteko aholkularia eta Piurako (Peru)
eskualde-gobernuko presidenteorde ohia.

**“Norbanakoek uste badute euri eragiten dieten
erabakietan parte-hartze esanguratsua izan dutela,
aldaketak onartzearen aldekoak izango dira,
nahiz eta aldaketa horiek euren kalterako izan...”**


Joseph Stiglitz.

Zer da herritarren parte-hartzea?

Herritarren parte-hartzea oinarrizko eskubide unibertsala da, bai eta printzipio demokratikoa ere. Konstituzio Politiko ia guztietan jasota dagoen eskubidea da, eta, horri esker, gure herrialdeko bizitza politikoan parte hartu dezakegu, bai norbanako gisa, bai modu kolektiboan. Herrialde bakoitzak bere lege, arau, prozedura eta abarrak garatu ditu, eta, horien guztien bidez, areagotu egin da herritarren parte-hartzea. Manu horiek aplikatu ahala, gainera, eraldatuz joan dira, inguruan gertaturiko aldaketekin bat etorriz. Dena dela, egia da, era berean, ekonomia sozial baztertzailak aplikatzen dituzten sistema hegemonikoez euren esku dagoen guztia egiten dutela herritarrek izan dezaketen parte-hartze maila mugatzearen, eta hala egingo dute aurrerantzean ere.

Prozesu sozial eta politiko anitzen ondorioz, herritarren parte-hartzeak halako hedapena bizi izan du eskubideei eta eskubide horiek egikaritzeari dagokionez, herritar izaera areagotuz. Halaber, Estatua demokratizatzeko politike-tan barne hartu da, kudeaketa publikoan herritarren zuzeneko esku-hartzea ahalbidetuz.

Adibide xume eta oinarrizko bat jartzearen: 1993. urtean Peruko herritarren %9k baino ez zeukan bozkatzeko eskubidea (kanpoan zeuden: emakumeak, alfabetatu gabeak eta 21 urtetik beherakoak), 1962an portzentaje hori %21ekoa zen (kanpoan zeuden: alfabetatu gabeak eta 21 urtetik beherakoak), eta 1993tik aurrera, portzentaje hori %50ekoa da, gutxi gorabehera (kanpoan daude: 18 urtetik beherakoak, soilik).



Iturria: Peruko Hauteskundeetako Epaimahai Nazionala (Jurado nacional de Elecciones Perú).

Parte-hartze hori, gaur egun, eskubide politikoak baino haratago doa (hautatzeko edota hautagai izateko eskubidea gaindituz), eta herritarrek kudeaketa publikoan parte hartzeko duten baliabide bilakatu da, eta, beraz, baita herritartasuna eraikitzeko bidean parte hartzeko duten baliabide ere. Zentzu horretan, Tanakaren (2001)¹ ustez, parte-hartzea modu generikoan ulertu behar da, hau da, herritarrek gai publikoetan esku hartzeko duten gaitasunean; beraz, erantzukizuna izateko modu bat da, hau da, kudeaketa publikoan herritarrek erantzukizunak hartzeko modua, alegia.

Definizio generiko hori oinarri harturik, hau da parte-hartze moduan aho batez onartu den definizioa: *“herritarren esku-hartzea ekintza (jarduera) publikoetan; ekintza*

¹ TANAKA, Martín (2001). “Participación popular en las políticas sociales. Cómo y cuándo es democrática y eficiente, y por qué puede también ser lo contrario”. Instituto de Estudios Peruanos (IEP) – Consorcio de Investigación Económico y Social (CIES).

horiek beharrizan jakin batzuk dituztenean helburu: gizartearen interes edota helburu komunak, alegia ". Betiere, ekintza gisa ulertu behar dugu, eta ez dugu ahaztu behar demokrazia batean parte-hartzea eskubidea eta betebeharra dela gizabakoentzat; hala definitu izan dute Nuria Cunill (1997: 74) eta Ziccardik (2004: 10)².

Era berean, kontuan izan behar dugu, zentzu maximalistaren arabera, herritarrek kontzientzia kritikoa sortzeko prozesua dela parte-hartzea, bai eta proposamenak egiteko modua ere. Hori guztia, baina, ez da eraginkorra izango botere-harremanak aldatzen edota handiagotzen ez diren artean.

Zergatik eta zertarako

Perun, Latinoamerikan eta, orokorrean, mundu zabalean, bizitza publikoaren esparru desberdinetan parte hartzea ahalbidetzen duten eskubideak onartu dira, modu formalean. Horretarako erakunde eta mekanismo instituzionalak sortu diren arren, ez dira nahikoa izan herritarren parte-hartze zabal eta iraunkorra lortzeko, ez eta parte-hartze hori gauzatzeko gaitasun edota konpromiso nahikoa duten herritarrak hezteko ere; eta azken hori, nola ez, ezinbesteko elementua da gobernantza publiko egokia lortze aldera. Beraz, oraindik behar-beharrezkoa da herritarrek parte-hartzearen inguruan duten kultura sustatzea, demokrazia moderno batean oinarri diren elementuak onartuz: elkarrizketa, hitzarmena, eraginkortasuna, efizientzia eta baliabide nahiz arlo publikoen gardentasuna.


Parte-hartzeak helburu bat baino gehiago izan ditzake; horien guztien atzean, hala ere, beti dago oinarri bera, hau da, Estatuko eragileek politika eta zerbitzuen inguruan hartzen dituzten erabakien aurrean herritarrek izan dezaketen eragiteko gaitasuna, euren bizimoduei eragiten dieten heinean.

Parte-hartzeari dagokion oinarrizko eskubidea aldian-aldian hauteskunde prozesu aske eta eskudunetan ordezkari eta agintariak aukeratzeko eskubidera mugatzen da demokrazian. Herritarren parte-hartzera zuzenduriko bestelako tresna batzuk instituzionalizatuz politika nahiz zerbitzuak erabiltzaileen baldintza espezifikoetara edota horien itxaropenetara egokitu daitezke, sistema politikoak sarritan hori ahalbidetzen ez badu ere.

2 "Gizarte eragileek jarduera publikoetan duten zuzeneko parte-hartzea adierazten duen ekintza politiko, zentzu anitzekoa". "Herritarrak barne hartuz politika sozialak diseinatu eta onartzeko prozesuetan eta aurretiaz definituriko eragile desberdinen jardunbideekin, emaitza hobekiak lor daitezke herritartasuna eraikitzeko bidean"

Izan ere, ordezkari politikorako bideak, alderdien sistema, erregimen demokratikoak eta abar ez dira nahikoa erkidegoaren interesak baliatu eta kudeatzeko. Hori horrela, prozedura osagarriak aurkitu bitartean, defizit demokratiko edota ordezkari defizit hori estaltzea ahalbidetuko duten bideak eskatu, sustatu eta bilatzen dituzte gizarteek etengabe, indarrean dauden sistema desberdinek sorrarazten duten mesfidantza eta ustelkeria neurrigabeari aurre egin nahian. Erregimen horiei dagozkien erakunde eta instituzioek, izan ere, oso onarpen maila baxua dute orokorrean, eta demokrazia edota herrialde jakin batek herritarrei benetan eskaini diezaiokeenaren isla edota emaitza uzten dute agerian.

Herritarren parte-hartzea prozesu sakon eta instituzionalizatuen bidez garatzen den herrialde gehienetan, prozesu horiek politika publikoen³ esparrura mugatzen dira batik bat, zerbitzu publikoei eta horiek gauzatzeko baldintzei arreta handirik eskaini gabe. Peruren kasuan, esaterako, arlo honetan oso aurrerapen gutxi eman da, nazio maila baino behragoko politika publikoei dagokienez.



Iturria: Latinobarometroa 1997-2013.

3 Gizartearen beharrezan erreal baten aurrean Estatuak ematen duen erantzun antolatua eta eraginkorra.

Bide horri ekinez, hau da, arestian aipatutako tresnak baliatuz, gizarteek euren itxaropen eta eskaerak Estatuari helarazteko aukera dute, neurri batean haserrea eta mesfidantza saihestuz, eta/edo demokraziarentzat nahiz etikarentzat desegokiak edota gaiztoak izan daitezkeen bestelako funtzionatzeko erak alboratuz. Azken horiek, izan ere, boterearen erabilera desegokia sustatu besterik ez dute egiten, moralarekin talka egiten duten negoziaketen bidez, dudazko mesedeak eginez eta, zenbait kasutan, baita indarkeriaz ere.

Pentsamendu politikoak dituen adar anitzak direla medio, gaur egun funtsezkoztat jotzen da demokrazia bateko gobernuaren eta gizartearen arteko lotura estua egotea, eta herritarrek parte hartu edota eskaeraren bat egiten duten bakoitzean behar adina azalpen ematea. Dinamika horretan murgilduz gero, are errazagoa litzateke gobernuentzat euren egitekoan hobera egitea, eta ustelkeriaren aurkako prebentzio lanak gauzatzea. Kudeaketa arrakastatsua izan nahi duen Gobernuak, beraz, honako erronka garrantzitsuei egin behar die aurre: gizarte antolatuarekin lotura aktibo bezain iraunkorra ezartzea, eta herritarrei eskaini beharreko espazioak gehitzea, azken horiek politika publikoen diseinu, exekuzio eta ebaluazioan parte hartu dezaten.

Hori guztia kontuan hartuta, mende honetan euren Konstituzioa berriztatu duten Latinoamerikako zenbait herrialdek berme konstituzionalak gehitu dituzte, politika publikoak sortu, kudeatu eta ebaluatzeko orduan herritarrek zuzenean parte hartzeko aukera izan dezaten. Zentzu horretan, “Herritarrek Kudeaketa Publikoan Parte Hartzearen aldeko Gutun Iberoamerikarrak (2009ko azaroaren 1etik abenduaren 1era bitartean Portugalgo Estoril hirian izandako Estaturuuen Iberoamerikako XIX. Goi-bileran onartu zen, eta Peruk ere sinatu zuen) “herritarren parte-hartzea konstituzionalizatzea” gomendatzen du.⁴

Herrialde gehienek boterea zuzenean zein hautatutako ordezkarien bidez egikaritzea ahalbidetzen dute. Hau da, zuzeneko boterearen ondoan zeharkako boterea ere badago. Bolivia, Ekuador, Honduras, Venezuela, Peru eta Paraguai bezalako herrialdeen Konstituzio Politikoetan aipatutako botere mota biak ahalbidetzen da. Beste kasu batzuetan, zuzeneko boterea egikaritzea debekatuta dago erabat, eta alderdi politikoen bidezko ordezkariak baino ez da onartzen.

Egia esan, boterea egikaritzeko beste bide batzuk txertatzea da testu konstituzionaletan gauzatu den legezko berrikuntzarik garrantzitsuenetakoa. Deigarria da

4 <http://www.clad.org/documentos/declaraciones/carta-iberoamericana-de-participacion-ciudadana>.

oso, modu edota bide horiek, kasurik gehienetan, zuzeneko demokrazia-mekanismoa izatea, inolako bitartekaritzarik gabea, alegia. Baina egia da, era berean, konstituzioak berritzeko modu horrek nolabaiteko berrikuntzak dakartzala, parte-hartzeari dagokionez; beraz, halako haustura jartzen du mahai gainean, alderdi politikoen eta parte-hartze sistemen arteko haustura, alegia. Eta egoera hori arduratzeko moduko muturrera iritsi ez den arren, egungo sistema politikoek hauskortasuna, ahultasuna eta mesfidantza sorrarazten dute, halabeharrez, herritarren artean.

Hona hemen Latinoamerikako zenbait herrialdetan legegintza arloan egin diren zenbait berrikuntza:

Peru	Herritarren Parte-hartze eta Kontrolari buruzko 26300 zenbakidun Legeak zuzeneko demokraziari dagozkion mekanismoak baino ez ditu aipatzen (atzera egitea, kargutik kentzea, ekimena eta erreferenduma).
Bolivia	2013an “Parte-hartze eta Kontrol Sozialerako Legea” onartu zen; horren aurretik “Herritarren parte-hartze Legea” zegoen indarrean, 1994koa.
Venezuela	2001. urtean Herritarren parte-hartzerako legeak zuzeneko parte-hartze politikorako mekanismoak arautu zituen: herritarren legegintzako ekimenak; kargutik kentzeko erreferendumak eta herritarren asanbladak.
Ekvador	2010ean “Herritarren parte-hartzerako Lege Organikoa” jarri zen indarrean; hori baino lehen, 1997ko beste lege bat zegoen: “Estatuaren deszentralizaziorako eta herritarren parte-hartzerako Lege berezia”.
Argentina	2004. urtean (Ricardo Lagos, 48-351 zenbakidun mezuaren bidez), herritarrek kudeaketa publikoan parte hartzeko proiektua iragarri, eta 2011n 20500 zenbakidun Legea jarri zen indarrean: “Erakundeak eta herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoan”.

Horrez gain, bada geroz eta ezagunagoa bilakatzen ari den uste bat: herritarren parte-hartzeari esker Estatuak eskariaren arabera bideratzen ditu bere lehentasunak.

Horren arabera, norbanakoek adierazitako beharrian edota lehentasunak hartzen ditu kontuan Estatuak, lehentasunak finkatzerakoan, eta horrek hobetu egiten du bere egiazkotasuna, lehentasunak finkatzeko agenda komunak eraikitzea ahalbidetzen duelako. Ondorioz, plangintza eta etorkizuneko prozesuak geroz eta parte-hartzaileagoak bilakatu dira apurka-apurka, ohiko plangintza alde batera utziz.

Hori horrela, zenbait herrialdetako plangintzek herritarren parte-hartzea barne hartzen dute arlo estrategikoan; bai lurralde mailan (tokikoa, eskualdekoa edo nazio mailakoa), bai sektoreka (hezkuntza, osasuna, nekazaritza, etab.). Arlo funtzional, operatibo eta instituzionalean, bestetik, dagozkien instantzia, arlo eta lankide/zerbitzarien parte-hartzea bermatzen dute⁵. Halaber, ebaluazioari dago-kion etapan herritarrez edota gizarte zibilaren ordezkarietaz baliatzen ari dira.⁶

Beste herrialde askok bezala, Peruk ere herritarren parte-hartzera zuzenduriko bide berriak abiarazi ditu. Bide horiek, nazio mailatik beherakoak dira bereziki, eta politika publikoak eta gobernuaren bestelako gaiak hitzartu, definitu eta onartzea dute helburu⁷. Horrek itxaropena sorrarazten duen arren, azken finean agintarietara eta funtzionarioetara erabakiak hartu eta ezartzerakoan euren gain mantentzen dituzten eskumen ugariak legitimatzeko aitzakia baino ez da, honakoa lelotzat hartutik: *“parte hartu, bai, baina Neuk erabakiko dut”*.

Parte-hartzea eta plangintza

Peruri dagokionez, udalerrietan eta, neurri txikiago batean, eskualde mailako gobernuetan ekimen eta esperientzia autonomoak abiarazi ostean, Garapen-planak proposatu eta onartzeko prozesuek izaera parte-hartzaile eta hitzartua

5 01-2014-CEPLAN Zuzentaraua, 9. art.: “Plangintza Estrategikorako organoak, garatu beharreko Plan Estrategikoa kontuan hartuta, erakunde, aditu eta gizarteko eragileei egin ahaliko die deialdia, plangintza estrategikorako prozesuarekin bai gaiaren arabera zein lurraldearen arabera zerikusia duten heinean”.

6 *Ley de Procedimiento Administrativo General* deritzona, 27444 zenbakidun Legea; erakunde publiko guztiek norbanakoan parte-hartzea baliatu ahaliko dute azken horiei eragiten dieten erabaki publikoak hartzerakoan.

7 *La Modificatoria de la Ley Orgánica de Gobiernos Regionales* (Lege-zk.: 27867), *Ley Orgánica de Municipalidades* (Lege-zk.: 27972 – 2003); Koordinaziorako Kontseiluak ezartzen dituzte, eskualdekoa eta tokikoa, hurrenez hurren. Lege-zk.: 29158, *Ley Orgánica del Poder Ejecutivo – LOPE*, herritarren eskubidea ezartzen du, “Botere Betearazlearen kudeaketan ikuskatu eta parte hartzeko; Estatuari informazioa emateko betebeharra ezartzen dio, parte-hartze eta ikuskaritza hori gauzatu dadin; eta aldiari aldiari kontuak eman beharko dizkie herriarrei, aurrerapauso, lorpen, zailtasun eta ikuspegiei dagokienez.

edukitzea lortu da, modu formal zein instituzionalean (Garapen Plan Hitzartuak, edo Planes de Desarrollo Concertado), bai udal mailan, bai eskualde mailan, zein sektoreka. Aurreko guztia berresten dute kudeaketa publikoa modernizatzeko Politikak eta Planak, duela zenbait urte onartu zirenak⁸, parte-hartzea eta hitzarmena barne hartzen baitute funtsezko printzipioen artean. Horrekin lotuta, arestian aipatutako Plangintza Estrategikorako Zentro Nazionala (CEPLAN) dago, hau da, gobernuaren instituzioek, horien esparrua edozein izanik, gizarte zibilaren parte-hartzearekin Plan Estrategikoen baitan garatu eta onartu beharreko araua. Halaber, gobernuz kanpoko erakundeek ekimenari eta sustapenari esker arlo horretan lanean diharduten instituzio arteko plataformentzako sostengua bilakatu da, gizarte zibileko beste ordezkari batzuen eta nazioarteko zein aldebiko kooperatzaileen parte-hartzearekin⁹.

Modu osagarrian, aurrekontuen eremura eraman behar da hau guztia; jakinda, betiere, egindako ahalegin guztia ekintza zehatzetan bilakatu behar dela, familien eguneroko bizimoduan eragin zuzena izango duten emaitzak lortuz. Izan ere, aurrekontuen alorrean islatzen dira, jakina denez, borondate eta erabaki guztiak. Norabide horri ekinez, Peru 28056 – 2003 Legea onartu zen, D.S. 171 – 2003 EF araudia eta 29298 – 2008 Lege osagarria barne hartzen dituena. Lege horren arabera, udal edota eskualdeei dagozkien Aurrekontu Publikoak herritarren parte-hartze bidez bideratu behar dira, prozesuaren etapa guztietan. Zentzu horretan, “eragile parte-hartzaileen¹⁰” eskubideak definitzen ditu legeak, horien zaintza edota gainbegiratzea bermatuz; eta, horrez gain, aurrekontuak onartuko dituzten udal nahiz eskualde mailako kontzejuekin izan beharreko harremana ere zehazten da bertan.

Esparru horren baitan, eta milaka ordezkariak hala erabaki ostean, Parte-hartze Aurrekontua erdiesteko Prozesuak izugarritzko garrantzia eskuratu du, *“nazioaz azpiko gobernuen erabakietan gizarteak zuzenean parte hartzeko*


8 *Política Nacional de Modernización de la Gestión Pública al 2021 – PNMGP*, 004-2013-PCM bidez onarturikoa. RM-zk.: 125-2013-PCM bidez *Plan de Implementación de la Política Nacional de Modernización de la Gestión Pública 2013 - 2016* izenekoa onartu da.

9 Consejo Nacional/regional de Educación, Consejo Nacional de Salud, Consejo Regional de Agricultura; etab.

10 Parte-hartze Erroldan izena eman eta egiaztatu diren erakunde nahiz instituzioetako ordezkariak.

daukan tresnarik eraginkorrena” bilakatu arte (Remy 2015)¹¹. Garrantzitsua da, parte-hartzaile kopuru ugari bezain anitza mugiarazi duelako gizartean, baina baita emaitza interesgarriak lortu dituelako ere, inbertsio publikoa bideratzea, esaterako. Egindako ebaluaketek argitu dutenez, ikaskuntza erabat interesgarriak jarri dira agerian, bai aurrerantzean izan ditzakeen aukerei dagokienez, bai egon daitezkeen mugei dagokienez; hori horrela, hamarkada batez indarrean egon ostean, definizio berriak egiteko moduan gaude.

Gizarte zibilak Eskualde mailako Aurrekontuetan duen parte-hartzeak nabarmen egin du gora. 2003an lehendabizikoz abian jarri zirenean, eskualde mailako parte-hartzea %28an zegoen. 2014. urtean, berriz, parte-hartze hori %57ra arte areagotu da, nazio mailan gizarte zibileko ordezkariak 2.097 izatera iritsi arte, beheko grafikoan azaltzen den moduan. Hala ere, horrek ez du bermatzen prozesuan parte hartzen dutenek nahi besteko ahalmena izango dutenik ordezkari izateko, ez eta interes erkidearen mesedetan egokiro lan egingo dutenik ere. Baina aukera hor dago, eta hori ukaezina da.



Bestalde, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) zeresan handia izan dute pertsonak erabaki demokratikoak hartzeko esparrura gerturatzeari

¹¹ “Sistematización del marco normativo de acción y propuestas para fortalecer la participación ciudadana en el marco del Plan de Acción de Gobierno Abierto y la Política Nacional de Modernización de la Gestión Pública”. Descentralizazioaren aldeko USAID Programa.

dagokionez. Gobernu Irekirako Aliantza (AGA)¹² nazioarteko ekimena da, borondatezkoa eta sektore anitzekoa; gobernuen aldetik herritarrenganako konpromiso zehatzak bermatzea du helburu, gardentasuna sustatzeko, herritarrak ahalduzko, ustelkeriari aurre egiteko eta Gobernagarritasuna sendotu nahian teknologia berriak baliatzeko. Helburu horiek lortze aldera, AGAk nazioarteko foro bat eskaintzen du, gobernuak, gizarte zibileko erakundeak eta sektore pribatukoak elkarrekin eztabaidatzeko eta elkarri iritziak trukatzeko. Horrek guztiak, gainera, guztien artean gobernu ireki bat bilatzea ahalbidetzen du. Ekimen horren eragileen artean, gobernuak ez ezik, gizarte zibileko nahiz sektore pribatuko erakundeak ere badaude, eta ekimenaren printzipioak eta xedea onartzen dituzte.

Latinoamerikako herrialdeek berrikuntza ugari abiarazi dituzte azken urteotan, gobernu ireki hori erdietsi aldera. Nazio mailako ahaleginari AGAren (Gobernu Irekirako Aliantza) aldetik herrialdeek lortu duten euskarria gehitzeak aurrerapauso izugarriak ekarri ditu gobernu irekiaren bidean.

Parte-hartze mekanismoak eta politika publikoak Perun

Heviak eta Isunzak (2010)¹³ esandakoari jarraiki, herritarren parte-hartzea ahalbidetzen duten bi mekanismo handi daude:

- i) Zuzeneko demokraziaren mekanismoak, eta
- ii) gizarte eta Estatuaren interfazeak.

Zuzeneko demokraziaren mekanismoak Peruko Estatuaren Konstituzio Politikoan arautu, eta Parte-hartze Eskubideei eta Herritarren Kontrolari buruzko 26300 Legean garatzen direnak dira. Hau da: ekimen legegilerako eskubidea,

12 OGP (Open Government Partnership) 2011ko irailaren 20an aurkeztu zuten, ofizialki, 8 gobernu funtzionari (Brasil, Indonesia, Mexiko, Norvegia, Filipinak, Hegoafrika, Erresuma Batua, Estatu Batuak). Lehendabiziko bi urteetan, 8 herrialde izatetik 60 izatera iritsi ziren. Herrialde horiek guztiak tokiko gizarte zibilarekin egiten dute lan, gobernu irekien ekintza-plan nazionala garatu eta ezartzeko. Peruri dagokionez, gardentasuna gehitu eta herritarren parte-hartzea bultzatu nahiz sustatzeko konpromisoa hartu ziren, kudeaketa publikoan profesionalak duten estandar altuak ezarri, eta teknologia berriak ezarri eta horien erabilera ahalbidetuz.

13 Felipe Hevia eta Ernesto Isunza Vera: "La perspectiva de interfaz aplicada a las relaciones sociedad civil-Estado en México". Mexiko. Centro de investigaciones y estudios superiores en antropología social (CIESAS).

erreferendum-eskubidea, agintariak indarretik kentzeko eskubidea eta funtzionarioak kargutik kentzeko eskubidea. Eskubide multzo horrek, hautaturiko ordezkari edota agintariek gauzaturiko akats edota ez egiteak zuzentzea helburu dituzten ekimenak baliatzeko aukera ematen die herritarrei. Mekanismo horiek, berez, ez dute elkarrizketarako eremurik definitzen. Kontrara, erabat sendoak eta norabide bakarrekoak dira (herritarrengandik Estatura); adibide gisa: agintari bat boteretik kenduko da, erabaki hori hartzea ebatzi duen kontsulta egin eta berehala; Kongresuak legegintzako ekimen bat barne hartuko du bere agendan, eta erreferendum bat lege bilakatuko da, Kongresuaren eta Gobernuaren iritzia edozein delarik. Horretarako, ordea, parte-hartze eta kontrol eskubideak egikaritzeko baldintzak oso zorrotzak izan behar dira, hauteskunde-prozesuen ondorioz ezarritako boterea egonkor mantendu behar dutelarik. Agintariak boteretik kentzeko edota lege-esparruak aldatzeko ekimenek, beraz, adostasun-maila handia eduki behar dute jatorrian, gutxiengo aktiboak eduki beharreen. Herritarren parte-hartzera zuzenduriko beste mekanismo batzuetan ez bezala, kopurua funtsezkoa da kasu honetan; ekimenarekin bat egiten dutenen sinadura-kopuru bat aurkeztu behar da (hautesle-eroldaren proportziozkoa), eta/edo bozka bidez egiten den kasuan, herritarren gehiengoa.

Gizarte eta Estatuaren interfazeak, bestalde, Estatuaren eta Gizartearen arteko elkarrizketa-guneak dira, batik bat. Eremu horiek instituzionalizatzeko esan nahi du Estatu prest dagoela hartu beharreko erabakiak gizartearekin eztabaidatzeko. Peruren kasuan, gobernu deszentralizatuen lege organikoek eta horien osagarriek betebeharrak gisa ezartzen dute eremu horien ezarpena eskualdeko nahiz tokiko gobernuentzat (Eskualdeko-Tokiko Koordinazio Kontseiluak, Parte-hartze Aurrekontua, eta abar). Baina, horiez gain, Gobernuaren eta Gizarte zibilaren artean topaketak ahalbidetzeko plataforma edota espazioak ere jarri dira martxan, kudeaketarekin lotutako gaiak lantzeko (hezkuntza, osasuna, ingurumena, nekazaritza, emakumea, emakume eta haurren aurkako indarkeria, lana, etab.). Aukera interesgarri bezain ona da, politika publikoen inguruan eztabaidatu, eta adostasun-maila handia lortzeko, gero ezarpen edota aplikazioan zailtasun ugari agertzen dituen arren.

Araudi sorta osagarri bati esker, politika publikoak eztabaidatzeko herritarrek dituzten parte-hartze mekanismo horiek hedapen handia lortu dute. Alabaina, badago oraindik existitzen ez den mekanismo bat (gobernu-maila edozein izanda ere): zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko herritarrentzako mekanismoa, alegia. Esan beharra dago gizartearen eta Estatuaren mota horretako interfazeak ez

daudela berariaz araututa Konstituzioan. Dena dela, azpimarratu beharra dago, era berean, Konstituzioak ez dituela halakoak debeketzen.

Herrialdean indarrean dauden gizartearen eta Estatuaren interfaze guztietan, hala gobernu nazionalen nola gobernu deszentralizatueta, herritarren parte-hartzea ordezkarien bidez gauzatzen da. Hori horrela, Peruko zenbait sektoretan, gizarte eragileen ordezkariak bidezko elkarrizketa politikoari ekin zaio.

Beheko taulan, Peruko politika publikoetan parte hartzeko herritarren eskura dauden zenbait bide jaso ditugu:

Politika publikoaren unea	Aurretik	Bitartean	Ondoren
	Plangintza	Betearazpena	Ebaluaketa
Herritarren parte-hartzea	Etorkizunekoak	Prozesuaren baitakoa	Atzera begirakoa
Adibideak	- Proposamenak	- Informazioa	- Ebaluaketak
	- Herritarren agendak	- Jarraipena eta Pantailaratzea	- Hautemate-azterlanak

Jakina denez, mota honetako mekanismoek eraginkortasunez funtzionatzeko, hau da, gizabanakoen ekintzek politiketan edota zerbitzuen kalitatean eragiteko, baldintza batzuk bete behar dira. Betiere, kontsultarako mekanismoak diren heinean (zuzeneko demokrazian gertatzen ez den bezala), eta agintariek proposamen eta erabakiak nahierara ezartzeko boterea gordetzen dutenean.

Hori horrela, ordezkariak bidezko mekanismoen eraginkortasuna handiagoa izango da, baldin eta oinarrian dagoen araua zehatza¹⁴ bada, mekanismo horrek ordezkarietarako erakundeak barne hartzen baditu edota gizarteko sektoreekin

¹⁴ Estatuaren eta enpresari nahiz langileen ordezkarien artean Consejo Nacional de Trabajo delakoan adostutako biziarteko gutxieneko ordainsaria finkatzea dakarren babes Konstituzionala da kasu bakarra. Gainerako kasu guztiek aholku izaera dute.

elkarrizketa gauzatzeko mekanismoren bat aurreikusten badu¹⁵ (besteen usteak entzuteak aberastu edota zehaztu egin dezake azken iritzia, erabakiak aho batez hartzetik gertuago egonik). Kontrara, aholkulari gisa baino ez badute funtzionatzen, gizarteak parte hartzeko duen interesa gainbehera doa.

Eskualdeetako Gobernuen Asanblada Nazionalak eskualde mailan ezarri diren politika publikoei buruzko balantzea argitaratu berri du; horietako asko parte-hartze mekanismoen ondoriozkoak dira, gizartearen eta Estatuaren interfaze izenekoen ondoriozkoak, alegia. Hori horrela, herritarren parte-hartzea, ahalduntzea, eragin politikoa, publikotasuna sustatu eta defendatzea, hitzarmenak, komunikazioa, eta informazioan nahiz nabaritasunean oinarrituriko erabakiak ordezkatu ezinezko baldintzak dira politika publikoen kudeaketari dagokionez. Ia gehienak, gainera, bat datoz gobernuaren erakundeek eta gizarteak elkarren artean izan behar duten harreman motarekin; halaber, herritarren esku dauden mekanismo edota aukerak indartu, eta erregimen demokratikoak sendotzen dituzte.

Aurrera begira

Behin erronkari helduta, unibertsala bilakatzeko borrokaren baitan, hau da, gizabakoa Estatuaren egitekoen artean funtsezkoa izateko nahian, helburu hori erdies-teko bidea egiten duten prozedurak, protokoloak, egitasmoak eta antzekoak identifikatu, eraiki eta ezartzea guztiz garrantzitsuak dira, eta arreta berezia merezi dute.

Ahalegin edota borondate horietako batzuk modu baten baino gehiagoren bidez adierazten dira; proposamena, betiere, horiek zuzendu eta bideratzea litzateke, guztion mesederako, gobernuaren jokabideari esker gizarteak askotariko onurak jaso ditzan (banakakoak, taldekakoak eta instituzionalak, erakundekakoa, akademikoa, etab.). Horretarako, harremanetarako bide anitzak ezartzen dira, ohiko bideak gainditzen dituztenak.

Ahalegin horiei dagokien aitortpena eman arren, askiekak dira inondik inora. Horregatik, ahalegin horretan areagotu beharra dago, gobernarien eta herritarren arteko harremanak berrezartzea eta, beraz, gobernatze-maila handiago bezain hobe lortuko duen etorkizunera begira.

15 Consejo Nacional de Educación delakoaren kasuak dira; espezialistez osatuta dago, baina aholku izaerarekin. Gauza bera gertatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) 169. hitzarmenean aitorturiko 29785 zenbakidun Legean: *de Consulta Previa a los pueblos indígenas u originarios*.

Gobernantza-maila berri horiek lortzeko, jokabide berriak behar dira, hau da, jokoan dauden interesak modu argiagoan identifikatu eta azaldu; botereen artean negoziaketak sustatu; administrazio publikoko sistema berritu; agintari publikoen aldetik, gardentasuna ez ezik, baita herritarren kontrola ahalbidetuko duten protokolo iraunkorren ikuskatzea eta kontrola ere, hori gauzatu ahal izateko, herritarrei baliabide eta gaitasunak eskainiz; eta ez soilik “politikari berriak” baliatuz. Hori guztia Zuzenbidezko Estatuaren errespetatzen duen ordezkari bidezko sistema politikoaren baitan, botereen oreka mantenduz. Kontuan izan behar da herriak hautematen duen demokrazia-maila ez datorrela bat alorreko adituek hautematen duten demokrazia-mailarekin; halaxe egiaztatzen dute, esaterako, *latinobarometro* bezalako azterlanek.

Gure gizarteak gehiago ikertu beharrean gaude, eta are gehiago Latinoamerikaren kasuan, azken hamarkadetan nolabaiteko defizita antzeman baitugu. Ezer gutxi dakigu ordezkari bidezko politikoko sistemez, gizarte kohesioaz, proiektu edota egoera erkide baten partaide izateak duen esanahiaz, interes-talde edo gizarte nahiz politikako erkidegoen baitan dauden hartu-emanen intentsitateaz. Horren gutxi aztertu direnez, batzuetan, nahiko genituzkeen jokabideak benetako errealitatearekin nahasten ditugu; ekonomian normatibo eta positibo bezala ezagutzen direnak (izan beharko litzatekeena eta benetan izan dena).

Alabaina, zenbait kasutan, Peru gertatu bezala gizartearen eskaera modu sistematikoki identifikatzea lortzen denean (segurtasun eza eta ustelkeria, aurre egin beharreko arazo gisa), zera esaten zaigu: Estatuaren eta Gizartearen arteko topagune izango diren espazioetan aipatutako arazoei aurre egiteko ekintzak sortu eta ezarri behar dira, politika publikoak diseinatuz eta gauzatuz. Hau da, parte-hartze hori edukiz doitu beharra dago, ezin baitaiteke ezer hutsean utzi, formalismoetan erori eta geure buruari iruzur egiten egongo ginateke eta.

Gizartearen eta Estatuaren arteko harremana, hau da, herritarren parte-hartzeari dagokion profila hobetzea ekarriko lukeen gai bat, lurralde bakoitzeko dinamikei so egitea litzateke, egiten diren ahalegin guztiak errentagarritzeko. Egiteko horretan, ez dira ahaztu behar ingurunea baldintzatzen duten aldeak; Peruren kasuan, eta adibide gisa, indarreko ereduaren aurreko erresistentzia satanizatzea eta “agintaritzaren printzipio” gehiago eskatu eta, halaber, errepresioa areagotzea, alde betatik; eta bazterkeria islatzen duen eredu ia bakarraren ondorioz sorturiko haustura sozialak ikusarazteko betebeharra, bestetik.

Estatuaren jarduera-eremuan herritarren parte-hartzera bideraturiko mekanismoak txertatu behar ditugu, halaber, politika publikoak kudeatzeko helburuarekin. Herritarrak horretarako prestatu bitartean, baina, aliantzak sortu beharra dago konfiantzazko erakunde espezializatuekin, eta, era berean, inbertsioak eta berrikuntzak egin behar ditugu instituzioetan, baita kultura arlokoan ere.

Herritarrek politika publikoetan duten parte-hartze mailak eremu instituzionalen dituen ahultasun eta mugak agerian utzi behar dira, ezarpenari dagokionez, batik bat, eta gobernu moderno, eraginkor, meritokratiko, ireki eta gardenaren baitan, betiere. Horretarako, nahitaezkoa da bestelakoen laguntza: akademikoa, alderdi politikoena, etab.

Peruren kasuan, herritarrek politika publikoen kudeaketan duten parte-hartzea (eztabaida, diseinua, ezarpena, ebaluazioa) legez arautu gabe dago. Inguruko beste herrialde batzuetan, ordea, hori guztia lege bidez definiturik dago, herritarren parte-hartzeari dagokionez legeria aurreratuagoa dutelako. Izan ere, zenbait arau aplikatzeari esker esperientzia aberatsa bizitzea posible izan bada ere, oraindik ere agintarien borondate, erabaki politiko eta aldebakarreko egintzen mende dago hori guztia.

Politika publikoak diseinatzeko orduan adierazgarriagoak diren Kontseilu Aholku-emaileak edota interfaze sozialak bezalako mekanismoek esperientzian oinarritutako ebaluazio baten beharra dute, garatu ahal izateko eta gobernantza hobea erdiesteko tresna hobeetan bilakatzeko.

Gizartearen ordezkariak erakunde sozialen bidez hobetu ahal izateko, herritarren borondateaz gain, Estatuaren laguntza ere beharrezkoa da. Hala herritarren parte-hartzea ahalbidetu eta horretarako baliabideak eskuratuz, nola funts publikodun erakundeek ekimen nahiz proiektuei lagunduz. Esaterako, Txileko ereduari jarraiki, herritarren parte-hartze eta antolaketarako Laguntza Funtza sortuz.

Egiteko hori ia ezinezkoa izango da, baldin eta honakoa ulertzen ez badugu: herritarrek politika publikoen kudeaketan daukaten egitekoak ez dituela Estatuaren jakintza teknikoak ordezkatzeko, osatu baizik, esperientzia eta norberaren beharrianak oinarri harturik, betiere. Era berean, ezingo da egiteko hori gauzatu, baldin eta gobernuaren sektoreak ez badu ulertzen zeinen garrantzitsua den herritarrengandik ikuspegi, beharrian, esperientzia, ebaluaketa eta proposamenak jasotzea, politika publikoen ezarpena bidezkoa eta bideragarria izan dadin. Azken

horrek aldaketa sakona eskatzen du administrazio publikoaren baitan; izan ere, norabide bakarrean lan egitera ohituta dago, betidanik. Aldaketa hori modu ego-kian gauzatzeko, kudeaketa publikoa modernizatzeko politikak ezartzeko ardura duen taldeak bideratu beharko du (kanpoko eraginik gabe ezinezkoa da aurrera egitea).

Parte-hartzeari buruzko zenbait diagnosi eta balantzek adierazten dutenez, Perun bizitako esperientzia agortuta dago jadanik, eta, zentzu horretan, berrikuntzak egin behar dira. Parte-hartze Aurrekontuaren esperientzia “enblematikoak” arazo bat baino gehiago sorrarazi ditu: parte-hartze arkitektura estandarra, zurruna, eta gobernu-maila desberdinen artean lotura sistemiko gabea (nazioa-eskualdea eta udalerrria); esparru arauemaile zurruna eta bakarra, gobernu-maila bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen ez dituen, eta herrialdean dagoen aniztasunari (lurraldeakoa, kulturala eta soziala) baliorik ematen ez diona; eta, azkenik, agintarien borondate eta nahiaren mende dagoen mekanismoa, aldi berean gizarte zibilaren ordezkariak dituen mugei aurre egin behar diena. Horietako arlo batzuk lantzeari ekin zaio, dagoeneko, Plangintzarako Sistema Nazionala ezarri zenetik; hau da, ikuspegi teknokratikotik, eta ez, ordea, ikuspegi politikotik.

Laburbilduz, beraz, nahitaezkoa da parte-hartzera bideraturiko espazio eta mekanismoak ebaluatu eta arrazoitzea, eta auren artea lotzea, herritarren lehenasunei hobeto erantzungo dien Estatua eraikitzen lagunduz. Herritarren parte-hartze hori indartzeaz gain (erakunde politikoak inolaz ere ordezkatzeko ez dituen), bestelako arloak ere indartu beharra beharra dago; hala nola, informazio publikoaren gardentasuna eta emaitzetan oinarritutako kontu-ematea.

Erreferentzia bibliografikoak

TANAKA, Martín (2001). “Participación popular en las políticas sociales. Cómo y cuándo es democrática y eficiente, y por qué puede también ser lo contrario”. Instituto de Estudios Peruanos (IEP) – Consorcio de Investigación Económico y Social (CIES).

Baca, Epifanio y Castillo, Gerardo (2009), “Perú: evaluación del presupuesto participativo y su relación con el presupuesto por resultados. Estudio de caso”, Grupo Propuesta Ciudadana. Lima.

Munduko Bankua (2004). Work Development Report. Making Services Work for Poor People. <http://wdronline.worldbank.org/worldbank/a/c.html/world_development_report_2004/abstract/WB.o-8213-5468-X.abstract>.

Campos, Eva y Corojan (2013), “Estado del arte del gobierno abierto.” Hofmann, Andrés; Ramírez Alujas, Alvaro; Bojórquez Pereznieta, Jose Antonio. (koord.) La promesa del gobierno abierto. Mexiko: ITAIP-Info. Dokumentua eskuratzeko: <http://www.lapromesadelgobiernoabierto.info/lpga.pdf>.

Hevia de la Jara, Felipe (2007). Participación ciudadana institucionalizada y despolitización: análisis crítico de los marcos legales de la participación en América Latina. Centro de Estudos da Metrópole/Centro Brasileiro de Análise e Planejamento. Dokumentua eskuratzeko: www.opalc.org/images/DPAR/hevia%202007%20pci%20en%20al.doc.

Remy, María Isabel (2011), “Participación Ciudadana y Gobiernos Descentralizados”. Cuadernos Descentralistas 28. Lima: Herritarren Proposamena. Dokumentua eskuratzeko: <http://www.descentralizacion.org.pe/apc-aa/archivos-aa/3c6bb51ada688b58c57cb18308d59d73/CD28.pdf>.

Partaidetza eta gobernantza

Partaidetza-demokrazia edo demokrazian parte hartzea?

Imanol Zubero

Soziologoa, UPV/EHUko irakasle titularra.

CIVERSITYko ikertzaile nagusia

Gure egoera hartuko dut gaia aztertzeko abiapuntu gisa; dena dela, hortaz, ohar-tarazi beharrean nago errealitate hori zenbait gauzatan Perukoaren bestelakoa izan arren badituela antzekotasunak ere. Hemen eta orain kokatutako gogoeta aurkeztuko dut, beraz, baina kontuan hartuta, halaber, “honaino eta orain arte” egindako bidea; izan ere, bide jakin bat eta ez beste bat egin dugulako gaude gaur egun gauden egoeran.

Cesar Vallejo perutar olerkariaren gogoeta bat hartuko dut oinarri. Hain zuzen ere, zera dio poetak bere olerkietako batean: “*Eta hainbeste hitzen ondoren, hitzak irauten ez badu?*”. Nork bere diziplinaren ikuspegitik begiratzen dio errealitate-ari, norberak ezagutzen duen ikuspegi horretatik; hala, soziologiak, adibidez, garrantzi handia ematen dio hizkuntzari, oro har, gizartearen kontakizun handiei, ele-zahar handiei. Ricoren aipua eginez (Ramiro, 1980), gizakia animalia zolia (*ladino*) dela esan daiteke; zenbait gauzatarako gai gara, eta, Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiaren arabera, zenbait adiera ditu *ladino* hitzak: *astuto* (zuhurra) eta *sagaz* (erne) esan nahi du, baina bere hizkuntzaz gainera beste hizkuntza bat edo batzuk aise menderatzen dituen hura ere definitzen du gaztelaniazko *ladino* hitzak. Eta gizakiaren definizio egokia da, gizakiek hitzez eraikitzen baitute mundua. *Hitzak*, Juan Carlos Monederok dioenez (Monedero, 2009), “elkarri lotu edo elkarretatik aska daitezkeen fikzioak dira, eta muga gaitzaileak sor ditzakete edo muga giltzapetzaileak, zeinaren barroteak baitira mundua irakurtzeko erabiltzen den gramatika preso hori”.

Jarduere hitz egiten da, baina jarduera horien izenetatik abiatuta. Eta ezin dezakegu ahanzi *neo-hizkuntza* bat sortzen joan den testuinguru jakin batean bizi

garela (termino hori erabili zuen Orwellek 1984 liburuan); neoliberalismoaren hizkera berri bat sortu da, nahiko nahasia, eta nahasmena gustuko duena. Kontzeptu berri ugari agertzen dira, eta, batzuetan, ez dago kontzeptu horiek erabiltzea beste erremediorik: hala nola, sarea, ahalduntzea, ekintzailtza, gizarte erantzukizun korporatiboa, gizarte berrikuntza eta gobernantza.

“Gobernantza” kontzeptua definitzeko, gaztelaniazko “gobernanza” hitzera jota, RAEren hiztegian, hauxe irakur daiteke: *“el arte o manera de gobernar que se propone como objetivo el logro de un desarrollo económico, social e institucional duradero, promoviendo un sano equilibrio entre el Estado, la sociedad civil y el mercado de la economía”*. Alegia, gobernatzeko antzea edo modua, zeinak hartzen baitu helburu gisa garapen ekonomiko, sozial eta instituzional iraunkorra, Estatuaren, gizarte zibilaren eta ekonomiaren merkatuaren arteko oreka osasungarri baten bidez. Gobernantza kontzeptu bat da, hitz bat, eta, hala, muga gaitzaile bat izan daiteke, muga bat zeinetatik aurrera lan egin beharko litzatekeen gauzak aldatzeko, edo fikzio bat, giltzapetu egiten duen hitz bat. Orain arte, muga gaitzaile gisa hartzen nuen gobernantza, baina soilik Joan Subiratsek erabiltzen zuenean (Bartzelonako Unibertsitateko zientzia politikoko katedraduna) edo ALBOANen tankerako GKEk erabiltzen zutenean; hortik kanpora, nekez ikusten nuen muga gaitzaile gisa. Gobernantzaren kontzeptuak eragozpenak sortzen dizkio gizarte errealitatearen analistari eta errealitate horren ikuskatzaileari.

Gobernantza, muga gaitzaile gisa

Subiratsek dio (Subirats, 2010) gobernatzeko modu tradizionalak gero eta zailtasun handiagoak dituela eta ingurune gero eta konplexuago bati aurre egin behar diola; ziurgabetasunari, askotariko eskakizun eta subjektuei aurre egin behar diela, eta, egoera horretan, zilegitasuna galtzen dutela gobernatzeko modu tradizionalak, eta, beraz, gobernatzeko modu berriak asmatu beharra dagoela.

Gobernantza, hitz giltzapetzaile gisa

Gogora ekarri beharra dago *gobernantza* kontzeptua 70eko hamarkadan hasi zela zabaltzen, gobernagarritasunaren kontzeptuarekin batera. Urte haietan, gaur egungoaren oso bestelako testuinguru batean geunden. Hirukoa, mundua gidatzen saiatzen diren multinazionalak eta analista handiak, ez dira analista neutro soilak, eta, demokraziaren krisiari buruz egin zuten gogoetan, galdera hauxe

egiten zioten beren buruari: “Demokrazia politikoa gobernu modu bideragarria da, gaur egungo moldean, Europako, Ipar Amerikako eta Asiako herrialde industrializatuentzat?”. Hiruko Batzordeak, Demokraziaren Krisia txostena landu zuen 75ean (Crozier, Huntington eta Watanuki, 1975), eta honako diagnostiko hau egin zuen: “Iristen den irudia ordena zibilaren suntsipenaren irudia da, gizarte diziplinaren hausturaren irudia, agintarien ahultasunaren eta herritarren alienazioaren irudia (...) ikuskatzaileek diote Amerika vietnamdartzen ari dela eta Britainia Handia italiartzen ari dela. Demokraziak ekarri duen positibismo horren aldi berean, beste pesimismo paralelo bat zabaldu da, baldintza ekonomikoen etorkizunari buruzkoa (...) Demokraziak kanpo mehatxu asko dituen arren, larriagoak dira haren baitako berezko erronkak, kanpokoak baino”. Todorovek emandako ideiez bestelako ideia horri jarraituz (2012), demokraziaren barne etsaiak dira pertsonak demokraziei egiten dizkieten eskakizun gehiegizkoak; alegia, jendeak gehiegi eskatzen die demokraziei, eta ezinezkoa da eskakizun ororentzako erantzunak izatea. Herritarren mobilizazio azeleratu eta sakonaren testuinguru horretan, enpresa handiek eta boteregune handiek diagnostikatu zuten demokrazia suntsitu egingo zela gehiegizko partaidetzaren ondorioz. Demokrazien disfunczio hauek aipatzen dituzte, zehazki:

- Berdintasuna lortu nahi da, eta, horrela, azkenean, zilegitasuna kentzen zaio autoritateari, lidergoari.
- Gehiegizko eskakizunak egiten zaizkie gobernuei.
- Konpetentzia politikoa hain da bizia, hainbeste negoziazio dago, hainbeste gatazka, ezin eramanezkoa baita egoera.

Slavoj Žižek pentsalariak dioenez, demokraziaren krisiaz mintzo gara, ez pertsonak beren boterearekiko sinesmena galtzen dutenean, eliteekiko konfiantza galtzen dutenean baizik. Testuinguru horretan, 70eko hamarkadan, eliteek, ikusirik herritarrek berekiko sinesmena galdu zutela, erreakzionatu egin zuten eta gobernagarritasuna asmatu zuten. Merkantilizazioaren bidez herritarren eskakizunei eustea zen helburua. Kontsumismoaren bidez, kredituak zabalduz, liberalizazioaren eta pribatizazioen bitartez, garai hartako ahalmen eraldatzaile kritiko guztiari eutsi zitzaion, nolabait.

Boaventura de Sousa Santos (2007) honako hipotesi hau planteatzen du gaur egungo egoera azaltzeko: 70eko hamarkadan ordezkari-politikaren mugak agerian gelditu baziren eta merkatuaren bidez denbora erostea lortu bazen,

litekeena da gaur egun ere merkatuak goia jo izana eta herritarren eskakizunei erantzuteko ahalmenik ez izatea, eta horrek behartuta asmatu izatea gauza berri bat, gobernantza, hain zuzen. Sousa Santosen aburuz, merkatuak gizarte erregulaziorako mekanismo gisa dituen mugak agerian gelditutakoan sorturiko zerbait da gobernantza.

Estévez legelari katalanak “*Que no te den gobernanza por democracia*” izenburuko artikulu interesgarri bat argitaratu zuen 2004an. Bide horretatik, zalan-tza sortzen da benetan indarrean dagoen gobernantzaren ezaugarriei buruz. Estatuak nahiz Merkatuak (enpresek) eta Herritarrek gizartearen etorkizunaz hitz egingo duten espazio publiko berri bat sortuz, agerian gelditzen da zein den gobernantzaren benetako egoera Mendebaldeko herrialdeetan. Ezaugarri nagusi hauek ditu:

- Demokrazia kooptatua.
- Merkatuaren nagusitasuna.
- Herritar babesgabeak.

Beti ikus daiteke argi printzaren bat, hau da, partaidetza jarduera txiki batzuk (tokian tokikoak, nagusiki), garrantzizkoak; baina testuinguru jakin bat dugu, eta testuinguru horren ezaugarrietako bat da gizarte demokratikoen ahultasun gero eta nabarmenagoa. Hiru adibide emango ditugu hala dela erakusteko:

1. Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmen Transatlantikoaren (MIHT) gaur egungo negoziazioa Europaren eta AEBren artean. EB ari da negoziazioa kudeatzen, eta, bere webgunean bertan dioenez, *ahal bezain modu irekian* negoziatzen ari dira hitzarmena. Erabateko isilpekotasuna, eta izugarritzko ondorioak herritarren bizitzan.
2. Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreforma, gastua mugatzea xede duena. Partaidetzarik batere gabe egin zen, bi alderdi nagusien arteko akordioz, beste inor aintzat hartu gabe.
3. Austeritatearen iruzurra. Bankuen erreskaterako ezarritako dirutzatik (70.000 milioi) parte txiki bat baino ez da berreskuratuko. Eta familiak?

Ezin dugu egoera horren aurrean ez ikusiarena egin: ohartu behar dugu testuinguru berri batean gaudela, Colin Crouchek dioen moduan (2004), erregimen

post-demokratikoen testuinguru bat sortu dela. Hau da, gaur egungo testuinguruan, murrizten ari da gobernantza; halaxe dio Europako Batzordeak, Sandra Kröger ikertzaileak egindako Gobernantzari buruzko Europako Paperak txostenean (2008). Ikertzaile horrek Europako testuinguruan gobernantza zertan datzan aztertu du, eta ondorioztatu du gobernantza ez dela kontsulta beste ezer, egile beraren “*Nothing but consultation*” ikerketaren izenburuak dioen moduan.

Jordi Borja urbanista katalanak (2012) galdera hau egin zion bere buruari berriki argitaratutako artikulu batean: “*Ez al da errazagoa gobernuetz hitz egitea, erakunde sistema deskribatzea, azaltzea zein diren haien obligazio eta eskumenak, gastuak eta diru-sarrerak eta herritarrekiko harremanetarako mekanismoak eta prozedurak, organizazioak eta ekintza kolektiborako moldeak?*”. Ez ote litzateke errazagoa horretaz hitz egitea, gobernantzaz hitz egin ordez? Ere mu neoliberelean, ordea, ibai nahasia, hizkuntza ibai nahasia, arrantzale neoliberalen irabazia. Eta, hala, berriro ere Cesar Vallejo poetaren hitzei helduz, nire buruari galdetzen diot: “Eta, hainbeste gobernantzaren ondoren, demokraziak irauten ez badu?”.

Hala eta guztiz ere, ukaezina da partaidetza funtsezkoa dela. Hala baieztatzen du R.H.S. Crossman britainiarrak (1977) *Estatu Modernoaren biografia* liburuan: “*Erakunde demokratikoen arrakastaren gakoa da erakunde horiek mugiaraziko dituzten demokrata aktibo eta arduratsuen gutxiengo nahiko bat izatea*”. “Gutxiengoa”, ez hitzaren zentzu aristokratikoan, zentzu hertsiki aritmetikoan baizik (kopuru bat, zeinaren azpitik ezinezkoa baita demokrazia aktiborik izatea). Gutxieneko pertsona kopuru bat behar da, pertsona aktibo eta arduratsuen kopuru nahiko bat, erakundeek modu demokratikoan funtzionatuko badute. Hau da, ez dago demokraziarik demokrata aktiborik gabe, partaidetza eraginkorra baita demokrazia ahalbidetzeko baldintza, eta, eskubidea ez ezik, eskubide iturria baita partaidetza. Praktikan, partaidetzarako eskubidea da demokrazia dakarren lehen eskubidea. Ez da demokrazia lehenik eta partaidetza ondoren: partaidetza dago, eta, horri esker, demokrazia dago, eta demokrazia hori eskubide moduan sendotuz doa. Demokraziaren beraren aurretik doa partaidetza: parte hartzen eta egoerak aldatzen dituen gizarte botere eraikirik ezean, ez dago demokraziarik. Abiapuntua ez du demokraziak jartzen, alderantziz baizik: partaidetzak eraikitzen du demokrazia eta partaidetza da demokraziaren euskarria.

Demokrazia. *Esadazu zer-nolako demokrazia nahi duzun, eta esango dizut zer pentsatzen duzun.*

Bi eredu daude, eta, batzuetan, ez dugu ikusten bien arteko aldea zehazki zein den:

- **Ordezkaritza-demokrazia.** Gizarte konplexuen testuinguruan sortzen dira mota honetako demokraziak, eta haien oinarria da, denean jarduterik ez dagoenez, ordezkatu beharra dagoela, ordezkaritza behar dela. Era horretako demokrazietan, hauxe da kezkarriena: pertsonen prozesu demokratikoei buruz duten ikuspegia. Ordezkaritza-demokraziak jakintzat ematen du norberak oso argi duela zer nahi duen, norbanakoaren interesak defendatzera jotzen duela jendeak espazio publikora; hala, egoera ez-demokratikoekiko alde bakarra da ez direla gauzak indarrez ezartzen, inposatzen, baina interes pertsonalak ateratzen dira negoziazio mahaira. Nork bere lehentasunak jartzen ditu mahai gainean, eta ezin eztabaidatuzkoak dira. Antzera gertatzen da merkatu ereduarekin: nor bere diruarekin eta erosketa nahiekin joaten da, ez da lapurreta egiten (hau da, ez da indarrez inposatzen), baina nork bere interesei jarraitzen die. Era honetako demokrazietako gizabanakoa izaki bakartia da, bere interesei jarraitzen die eta beren interesei eutsiz soilik dago beste batzuekin negoziatzeko prest. Hala, bada gehiengoan arau bat, interes gehien biltzen dituenak ateratzen du gehien.
- **Demokrazia errepublikarra.** Era honetako demokraziek ere badituzte ordezkariak, ezinezkoa baita gizarte konplexuetan ordezkariarik ez izatea. Prozedura demokratikoetan, kontua ez da nor bere interesekin joatea eta batzuetan amore batea, baizik eta deliberazio prozesuan zehar interesak eraldatzea, eta are interes pertsonalak moralizatu ahal izatea. Litekeena da, esaterako, nik talderen bati laguntzak murrizteko interesa izatea, baina demokraziak ez du zertan bere egin nire interesa, nire lehentasuna, eta ikusi azkenean zer gertatzen den, hainbat sinadura bildu ditudalako edo; litekeena da lehentasunak moralizatu behar izatea, batzuk ez direlako egoiak gizarte eraikitzeko, eta politikak jakin egin behar du lehentasun horiek moralizatzen. Azkenean, boto bidez hartu behar da erabakia, agian, baina horrek ez du ezer itxiko, deliberazio prozesu bat burura eramateko urratsa izango da. Epaimahaietan bezala, deliberazioa dator, lehenik, eta akordioa lortzeko ahalegina, eta, ezinezkoa bada akordioa, orduan botoa ematen da. Akordioa lortzea da ideala, eta deliberazio ahalegin itzela egiten da horretarako.

Italian, adibidez, izugarritzko garaipena lortu zuen Renzik, hauteskunde legea erreformatzearen alde eta bigarren itzulia egitearen alde. Italia gobernagarritasunik ezaren eredia da beti, bizitasun handia dagoelako, nahasmena handia delako eta interes asko daudelako; hala, erreforma horrekin lortu nahi da bigarren itzulia egitea hauteskundeetan, kanpo gera dadin bizitasun horren, interes horien parte handi bat. Gobernantza edo gobernagarritasuna aukeratu beharra dagoenean, gobernagarritasunaren aldeko hautua nagusitzen da, itxuraz. Dirudenez, ez gara ohartzen funtsean gatazka dagoela, interesen borroka demokratiko eta bakezko bat dagoela, elkarri kontrajarritako botere batzuk eta indar metaketaren araberrako botere batzuk daudela.

Partaidetzaren erronka handiak

Hiru erronka nagusi daude partaidetza-demokraziari dagokionez –edo demokrazian parte hartzeari dagokionez, gauza bera baitira biak–. Demokrazia eta partaidetza beti daude elkarri lotuta, batek bestea dakar. Horrek gizarte zientziek egituraren eta ekintzaren artean duten dilema handira garamatza. Gizabanakoak gai dira ekiteko eta gauzak egiteko, baina esparru egituratutan, betiere. Pertsonak nahiz egiturak dira arazoak; beste kontu bat da arazo horri zer irtenbide ematen zaion, pertsonak hartzen diren abiapuntu, ala egiturak. Baliteke partaidetza-demokrazia batean inork parte ez hartzea; alegia, badago egitura, baina ez ekin-tzarik. Eta, alderantziz, gerta liteke parte hartzeko irrika duen jendea egotea, baina ez egotea partaidetza-egiturarik. Oreka bilatu behar da bi egoeren artean.

1. Denbora

Denbora asko eskatzen du. Ez da harrizkoa jende bat politikan profesionalizatzeko dela esatea, denbora asko eskatzen baitu. Uztar al daitezke bizitza profesionala, familiakoa eta publikoa edo zibikoa? Kalitatezko denbora eta gauza asko egiteko denbora behar da (nork bere jarrerak adierazteko, elkarriketarako, deliberatzeko, beste aukera batzuk entzuteko, hasierako lehenespenak aldatzeko). Eta parte hartu nahi duten pertsona guztiak behar dute denbora hori. Denboraz estu dabilta gizarteak. Batzuetan, lasterbideak bilatzen dira, adibidez, teknologia berriak. Cesar Rendueles filosofo gazteak (2013) berak *ziberfetixismoa* deritzonaren kritika egiten du *Soziofobia* liburuan. Kritikatu egiten du teknikaren bidez arazo etikoak konponduko ditugulako ideiare: ez da sekula halakorik gertatuko; asko jota, arazo etiko horiek ahaztu egingo dira, besterik ez. Eta hori guztia

praktika demokratikoari aplikatzeko garaian, Cesarrek bere liburuan dio “ziberfetitxistek ez dutela askatasun bateraturik behar (hau da, askatasun komuna), simultaneoak baizik (hau da, aldiberekoak). Internetek emantzipazioaren ordeko epidemiko bat eskaintzen du, hurrenez hurreneko independentzia eta konektibitate dositan. Sare digitalei buruz zabaltzen diren metaforen eraginez, zabarrak, geldoak eta aspergarriak dirudite esku-hartze politikoei, sarearen bizitasun bat-bateko eta organikoarekin alderatuta. Diseinu formal digitalak bultzatuta, soluzio optikoak modu automatikoan sortuko direla pentsa liteke, deliberazio prozesuen emaitza izan ordez”. Horrek ez du esan nahi teknologia funtsezkoa ez denik gauzak arintzeko eta hobetzeko, baina iruzurra litzateke gizartearen denbora-premia konponduko duela esatea. Hau da, demokraziarako denbora irabazi beharra dago.

2. Tokia – esparrua

Norberto Bobbio (1984) politologoaren arabera –Europako politologo nagusietakoa–, *“gizarte baten demokratizazio maila neurtzeko, ez da aski kontuan hartzea zenbat lagunek ematen duten botoa, baizik eta zenbat tokitan ematen den botoa edo parte hartzen den”*. Hainbeste mugatu dira partaidetzaren esparruak, non ahaztu egiten baitugu oso gauza konplexuak gertatzen direla. Boaventura de Sousa Santosek modu erabat dramatikoan dioenez (2006), *“politikoki demokratikoak izanik sozial faxistak diren gizarteetan bizi gara”*. Alegia, testuinguru politiko demokratikoa izan arren, eguneroko bizitzan *“egunerokotasuneko mikrodi-kvaduretan”* bizi gara, erabakirik hartu ezin den eta botere-erabakiak inposatzen diren esparruetan. Adibidez, zer askatasun du langile batek, gaur egun? Britainia Handian, dagoeneko egiten hasita daude zero orduko kontratuak: langile batek enpresa jakin batekin inolako lan loturarik izan gabe, delako enpresa horrek langileari esaten dio deituko diola lanerako, baina ez dio esaten ez zenbat denborarako, ez zenbateko soldataren truke, eta deitzen diotenean lanera joateko libre egon behar du. Zer-nolako negoziazio aukera du pertsona horrek bere lanean? Batere ez. Hori adierazten du mikrodi-kvaduren kontzeptuak: aukeratzeko, botoa emateko, parte hartzeko inolako aukerarik ez dugun esparru horiez dihardu, zeinetan ematen baitizkigute erabakiak botere ariketaren bidez harturik. Eta horrek lotura du ekintza demokratikorako esparruekin. Non gauza daiteke ekintza demokratikoa eta zein da parte hartzeko eskala? Globalizazioak ez du batere erraztasunik ematen: gudan eragin nabarmena edo erabatekoa duten erabaki gero eta gehiago hartzen dira esparru lokaletatik kanpo, nahiz eta demokraziak ez duen esan nahi herriaren gobernu ere, baizik eta auzoaren gobernu, testuinguru txikienetan, lokalenetan jaio baitzen demokrazia, bizitza egiten den testuinguru-

etan. Horrek eskalagarritasunaren auzia planteatzen du. Posible al da globalizazio iritsi arte eskalaz eskala igotzea, goranzko bide horretan esparruak demokratizatuz? Maila asko bilduko dituzten tarteko erakundeak behar dira demokrazia goraino iritsarazteko.

3. Beharraren askatasuna

Beveridge Txostenean (britainiar Ongizate Estatuaren jatorrian dagoen txostena da, eta, beraz, Europako gerraondoko ongizate estatuen jatorrian dagoena, zeinak izan baitira ongizate estatu garaikideen eredu), hauxe da gehien errepikatzen den esaldia: “Beharra da askapenerako bidea”. Baina beharra dagoenean, ez dago askatasunaz hitz egiterik. Behar egoerak gaingiduta soilik planteatu ahal izango dira askatasunarekin loturiko auziak. Horregatik dio Etienne Balibarrek *berdintasun-askatasuna* dela gakoa. Askatasunik gabe ez dago berdintasunik; eta, alderantziz, berdintasunik gabe ez dago askatasunik. Zer testuingurutan hartzen dira erabakiak, gaur egun: askatasunezko testuinguru batean ala beharrezko testuinguru batean? Dahrendorfek goeko hamarkadan esaten zuenez, aukera egin beharko genuke hazkunderen, gizarte kohesioaren edo askatasun politikoaren artean. Hala, aukeran dago Singapur izatea –hazkundera eta gizarte kohesioa bai, baina askatasun politikorik ez–, India izatea –kohesioa eta askatasuna bai, baina hazkunderik ez– edo Estatu Batuak izatea –hazkundera eta askatasuna bai, baina gizarte kohesiorik ez–. Bistan denez, oso zaila da hiru gauzak izatea. Eta antzeko planteamendua egiten du Rodrikek, “globalizazioaren trilemaz” mintzo denean: trilema horren arabera, aukeratu egin behar da Nazioa-Estatuaren eta demokraziaren, hiperglobalizazioaren eta politika demokratikoaren artean, baina 3 gauzak ezinezkoak dira. Gaur egun, aukeratu egin behar da hazkundera ala askatasuna; eta horren erakusgarritzat har daiteke Grezian Syryzari eskatzen diotena: aukera egitea herritarrekiko konpromisoari eustearren edo amore eman eta zorra ordaintzearen artean. Oso egoera konplexua da: beharra dagoen tokian ez baitago askatasunik. Thomas Pikettyk argi eta garbi esan zuenez, norabiderik okerrenean doaz gauzak munduan: ez da izango gero eta berdintasun handiagoa eta ez da egongo gero eta jende aske gehiago; aitzitik, berdintasunik eza areagotuko da, eta, beraz, jende gehiago egongo da beharrean. Pikettyk (2014) *XXI. mendeko kapital soziala* liburuan zioenez, etorkizuneko belaunaldien lorpen ekonomikoen %30 edo 40 izango dira gurasoen abiapuntuaren arabera. Egoera horretan, demokraziarentzat erronka itzela da berdintasunik eza. Horrek erabateko haustura eragiten du gizarteetan;

“krazia” egon dadin, ezinbestekoa da “demos” bat izatea, baina ba al dago “demosik” gaur egun halako berdintasunik eza duten gizarteetan? Edo herriaren-gandik gero eta urrutiago daude eliteak? Hala gertatu zen Frantzian, esaterako, 2005eko azaroan, banielu auzoetako gatazketan: erabateko urruntzea gertatu zen eremu horietako biztanleen eta herrialdeko elite politiko eta ekonomikoaren artean. Nola sortu demokrazia, berdintasunik eza hain nabarmena den testuinguruetan? Horixe da gaur egungo erronka nagusia. Dahrendorfen moduko liberalentzat, gizarte taldeen arteko arraila sistematikoa bateraezina da gizarte zibilarekin, eta Tony Judten moduko sozialdemokratentzat, anaitasunaren zentzua galarazten du berdintasunik ezak.

Partaidetza demokratikoa

Testuinguru horretan, zer gertatzen da partaidetzarekin? Joera baten arabera, gauzak oso oker dabilta. Hala dio Putnamek, esate baterako; haren aburuz, gainbehera dator kapital soziala, demokraziak eratu zituen belaunaldia zahartu egin delako eta belaunaldi berriek ez dutelako parte hartzen. Putnamen aurrez aurre, ordea, beste ikertzaile batzuek –hala nola, Ulrich Beckek– diote belaunaldi berri horiek partaidetzari buruzko eskakizun berriak dituztela, orain arteko ez bestelako eskakizunak, eta oraindik ez zaiela erantzunik eman: askatasunaren seme-alabak dira. Litekeena da partaidetzaren kultura berri bat sortzen aritea, eta gu partaidetza zaharraren betaurreko zaharrekin irakurtzen saiatzen aritea kultura berri hori, hari nola heldu ez dakigula. Nola heldu partaidetzaren kultura berri horri? Nola hartu jende hori, anti-instituzionalista eta informala, gobernuen kontrakoa, mobilizazioak sustatzen dituena eta, batzuetan, eraginkortasuna balioesten ez duena? Nola kudeatu horrelako gauzak? Badaude parte hartzeko aukerak, baina ez dago argi horiei buruz zer jokabide hartu.

Gobernantzaren esparrua, esparru kontra-hegemonikoa eta tarteko esparrua

Gobernantzaren esparruan nahiz esparru kontra-hegemonikoan, erradikalak eta bestelakoak izan arren gauza asko egin daitezkeela adierazten duten hainbat alternatiba eta proposamen daude. Oparotasun handia dago partaidetzari heltzeko aukerei dagokienez:

- Gobernantza klasikoaren esparruan:

- Gizarte berrikuntzako proposamen klasikoak, CEPALen eta Europako Batzordearen eskutik.
- Gizarte berrikuntzako proposamen berrizaleagoak.
- Kapital soziala.
- Esperimentalismo demokratikoa (Roberto Mangabeira Unger, 2000).
- Gaitasun zibikoa.
- Kolaboraziozko onura komuna, Rifkin (2014).
- Esparru kontra-hegemonikoa:
 - Herritar matxinatuak (James Holston, 2008).
 - Komun urbanoak.
 - Arrailak (Holloway, 2011).
 - Aldi bateko eremu autonomoak (Hakim Bey, 1991).
- Tarteko esparruak:
 - Estatu Esperimentala, Boaventura de Sousa Santosena (2004).
 - O. Wrighten utopia errealak (2014).

Bide asko daude partaidetza pentsatzeko, zailtasunak zailtasun; aberastaisun handia dago partaidetzaren inguruko planteamenduetan, eta horixe da interesgarriena.

Zer egin, aukerak baliatzeko eta alderdi negatiboak gainditzeko?

1. Benetako erabilera-balioa eman behar zaio politikari; jendeak ikusi egin behar du politika baliagarria dela. Hannah Arendtek dioenez, *“hasi ahal izatea esan nahi du politikak”*. Hasi daitekeela esan behar zaio jendeari; esan behar zaio aldatu egin daitekeela orain indarrean dagoena, bestelako mundu bat posible dela.
2. Partaidetzaren kontzeptua zabaldu beharra dago. Botoa ematea baino askoz ere gauza gehiago egitea da parte hartzea.

3. Partaidetza bideragarri egin behar da; materialki eta ekonomikoki bideragarria izan behar du. Horrekin lotuta daude oinarrizko errentak, lan zibikoaren aitortza, etab.: ezin dute politikan harrapatuta gelditu, alternatibarik gabe. Demokraziaren amaiera litzateke.
4. Politika birkokatu behar da. Aurre egin behar zaie esparru demokratikoaren krisiari eta subjektu demokratikoaren krisiari.

Une honetan, iluntasuna da nagusi, baina ikusten dira argi izpi batzuk. Testuinguru jakin batean gaude, jakina, eta testuinguru hori aldatu beharra dago. Berriro ere Cesar Vallejo dioenari helduz, testuinguru hori aldatu beharra dago, *demokrazia* hitzak bizirik iraun dezan.

Bibliografia

- Bey, H. (1996). TAZ: zona temporalmente autónoma. Talasa.
- Bobbio, N (1984). “El futuro de la democracia”, *in* Revista de las Cortes Generales, 2. zk., Madril.
- Borja, J. (2012). La ecuación virtuosa e imposible o las trampas del lenguaje. Carajillo de la Ciudad, 12. zk.
- Crouch, C. (2004). Posdemocracia. Madril. Taurus.
- Crossman, R. (1977). Biografía del estado moderno. Madril. Fondo de Cultura Económica de España.
- Crozier, M., Huntington, S. eta Watanuki, J. (1975) The crisis of democracy. Report on the governability of democracies to the trilateral commission. New York University Press.
- De Sousa Santos, B. (2004). Reinventar la democracia: reinventar el Estado. Abya Yala argitaletxea.
- De Sousa Santos, B. (2006) Renovar la teoría crítica y reinventar la emancipación social. Buenos Aires. CLACSO.
- De Sousa Santos, B. eta Rodriguez Garavito, C. A. (eds.) (2007) El derecho y la globalización desde abajo. Bartzelona. Anthropos.

- Estévez, J. A. (2009). Que no te den gobernanza por democracia. Mientras Tanto aldizkaria, 108-109, 33-49.
- Holloway, J. (2011) Agrietar el capitalismo. Bartzelona. Intervención Cultural.
- Holston, J. (2008). Insurgent citizenship: Disjunctions of democracy and modernity in Brazil. Princeton University Press.
- Kröger, S. (2008) Nothing but consultation: The place of organised civil society in EU policy-making across policies. European Governance Papers (EUROGOV) No. C-08-03, <http://www.connex-network.org/eurogov/pdf/egp-connex-C-08-03.pdf>.
- Mangabeira, R. (2000) La democracia realizada: la alternativa progresista. Buenos Aires. Editorial Manantial.
- Monedero, J.C. (2009) El gobierno de las palabras. Política para tiempos de confusión. Madrid. Fondo de Cultura Económica.
- Piketty, T. (2014) El capital en el siglo XXI. Madrid. Fondo de Cultura Económica de España.
- Ramiro Rico, N. (1980) El animal ladino y otros estudios políticos. Madrid. Alianza Editorial.
- Rendueles, C. (2013) Sociofobia. Madrid. Capitan Swing.
- Rifkin, J. (2014). La sociedad de coste marginal cero: el internet de las cosas, el procomún colaborativo y el eclipse del capitalismo. Bartzelona. Paidós.
- Subirats, J. (2010) Si la respuesta es gobernanza, ¿cuál es la pregunta? Factores de cambio en la política y en las políticas. *Ekonomiaz*, 74, 16.-35. or.
- Todorov, T. (2012) Los enemigos íntimos de la democracia. Bartzelona. Galaxia Gutenberg.
- Wright, E.O. (2014) Construyendo utopías reales. Madrid. Akal.

